

#NIREAGERTUTIK ZOZKETA SUSTATZEKO LEGE OINARRIAK

Data: 2025eko otsailak 12

1. Enpresa antolatzailea

HAZI FUNDAZIOAK (aurrerantzean, “HAZI”) antolatu du sustapen hau, eta lege-oinarri hauen (aurrerantzean, Oinarriak) arabera gauzatuko da. HAZIren egoitza sozialaren helbidea honakoa da: **Arkautiko Granja Eredua, z/g 01192 (Araba).**

Sustapen hau Nirea Programarekin lotuta dago, eta honako helburu hauek ditu: komunitatearen parte-hartze aktiboa sustatzea, Euskadiko landa eta itsasertzeko ingurunearen gaineko kontzientzia sortzea, landa-ingurune eta hiriko herritarren arteko lotura indartzea, Nirea Akordioa Instagrameko kanalaren erabilera sustatzea eta kanal horren jarraitzaileei zozkatzen den saria irabazteko aukera ematea.

2. Parte hartzeko baldintzak

Euskadin legez bizi diren eta Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten 18 urtetik gorako pertsona guztiek parte har dezakete zozketan. Ezingo dute parte hartu erakundeko langileek, ezta Nirearen sustapenarekin lotutako zuzeneko entitate kolaboratzaileetako langileek ere.

Sustapenean parte hartzeko, beharrezkoa da Instagramen profil bat izatea eta sare sozial horretan Nirea Akordioaren profilaren jarraitzaileak izatea.

Sustapenaren oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten parte-hartzaileek ez dute eskubiderik izango saririk jasotzeko.

3. Sustapenaren iraupena

2025eko urtarrileko, otsaileko, martxoko, apirileko, maiatzeko, ekaineko, uztailako, abuztuko, iraileko, urriko, azaroko eta abenduko bi astetan zehar egingo da sustapena.

Zehazki, aipatutako hilabete bakoitzaren 15ko 09:00etatik hilaren azken eguneko 23:59 arte parte hartu ahal izango da sustapenean. Ez da onartuko aldi horretatik kanpo egindako parte-hartzerik. Sustapena amaitu eta lehenengo egun baliodunean jarriko gara harremanetan irabazlearekin.

4. Parte-hartzearen mekanika

Zozketan parte hartzeko, parte-hartzaileek honakoak egin beharko dituzte:

1. [@nirea akordioa](#) Instagrameko kontu ofizialaren jarraitzaileak izatea.

2. Zozketari dagokion argitalpenean ezarritako jarraibideak betetzea; adibidez, postean iruzkin bat idaztea edo posta partekatzea, kasu bakoitzean adierazten denaren arabera.
3. “#NireaGertutik” traol ofiziala erabiltzea.
4. Helburu horietarako, Instagramen bidez jarriko gara harremanetan irabazlearekin, saria jasotzea onar dezan eta sari-banaketa kudeatzeko harremanetarako helbide elektroniko bat eman diezagun.

5. Irabazlea aukeratzea

Aipatu ditugun baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaile guztien artetik, irabazle bat aukeratuko dugu hilabete bakoitzean, AppSorteos tresna erabilita. Plataforma horrek zozketaren gardentasuna bermatzen du eta egiaztagiri bat igortzen du.

Hileko sustapenean parte hartzeko epea amaitu eta hurrengo egun baliodunean egingo da zozketa. Zozketaren argitalpenean egindako iruzkin baten bidez eta istorioen bidez iragarriko da irabazlea, Nirea Akordioaren Instagrameko profil ofizialean.

6. Saria

Nekaturren “Laia” Nekabono bat izango da saria, 160 euroko balioa duena, eta honakoak hartzen ditu barne:

- **Bi gaueko egonaldia logela bikoitz batean, gosaria barne, bi pertsonarentzat;** edo
- **Bi gau landa-apartamentu batean, bi pertsonarentzat.** Bi aukerak, Euskadiko landetxeetan.

HAZIk zuzenean emango dio Nekabonoa irabazleari, eta hark Nekaturrek ezarritako baldintzen arabera trukatu beharko du, ostatua libre dagoenean.

Baliozko parte-hartzailerik ez badago, HAZIk saria ez banatzea erabaki dezake.

Sustapen honi dagokion saria ezin da dirutan trukatu, eta, hala badagokio, atxikipen fiskalak ezarriko zaizkio.

Irabazlearen helbide elektronikora bidaliko da saria.

7. Irabazlearekin harremanetan jartzea

Irabazlea hautatu ondoren, Instagrameko zuzeneko mezu baten bidez jakinaraziko zaio. Irabazleak **3 egun balioduneko** epea izango du jakinarazpenari erantzuteko eta saria onartzen duela baieztatzeko.

Adierazitako epean ez badugu lortzen irabazlearekin harremanetan jartzea, edo irabazleak ez baditu Oinarriak betetzen, irabazle berri bat aukeratuko da, tresna bera erabilita.

8. Sare sozialak plataforma gisa erabiltzea

Oinarri hauek onartuta, parte-hartzaileek zozketarekin lotutako edozein erantzukizunetatik salbuesten dute Instagram.

Sustapen hau ez du Instagramek babesten, ziurtatzen edo administratzen, eta ez dago plataforma horri lotuta.

HAZIk ez ditu bere gain hartuko Interneten edo Instagramen funtzionamendu okerragatik sor litezkeen akats posibleak, ezta beste arrazoi batzuegatik sortuak ere: etenak, osatu gabe zeudelako edo beste arrazoiaren batengatik erregistratu ez diren parte-hartzeak, baimendu gabeko sarrerak, eta horiek erabiltzaileari eragin diezazkioketen kalte-galerak.

Argitaratutako esaldiak ezabatzeko eskubidea du HAZIk, baldin eta horiek mingarriak, iraingarriak, gustu txarrekoak edo legez kontrakoak badira, edo, beste arrazoiaren batengatik, ez txertatzea hobe dela edo komeni dela uste badu.

9. Datu pertsonalen babesa

Zozketan parte hartzeko ez da pertsonak identifikatzen dituzten datu pertsonalik bilduko. Hala, @nirea_akordioa Instagrameko kontu ofiziala jarraitzen duten eta “#NireaGertutik” traol ofiziala erabiltzen duten Instagrameko profilen artean bakarrik egingo da zozketa.

Saria banatzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak bakarrik kudeatuko dira, eta “Nirea programa”-ren baitan tratatuko dira. EAEko nekazaritza-, basogintza-, abeltzaintza- eta arrantza-sektoreekin lotutako jarduerak sustatzea, hedatzea eta horien gainean sentsibilizatzea da programaren helburua, eta HAZI Fundazioa (IFK: G-48986137; helbide soziala: Granja Eredua z/g, Arkauti, 01192, Araba) da haren arduraduna.

Hazi Fundazioak Datuen Babeserako Europako Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua babesten dituen jarduerak egiteko dituen botere publikoen (bere estatutu propioetan oinarrituak) erabilerak legitimatzen du datuen tratamendua.

Datu pertsonalak ez dira lagako, tratamendu honen eremuan aplikatzekoa den legezko betebeharrak bat betetzeko beharrezkoa ez bada. Saria banatu arte gordeko dira datu pertsonalak eta, gero, suntsitu egingo dira.

Interesa duten pertsonak, beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamenduari uko egiteko, datuak eramateko eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabil ditzakete. Horretarako, HAZIri bidal diezaiokete eskaera, aurrez aipatu dugun posta-helbidera edo lopd@hazi.eus helbide elektronikora. Eskaera bidaltzeko, gure pribatutasun-atarian (www.hazi.eus) eskuragarri dago formulario-eredu bat. Pertsona batek uste badu bere eskubideak ez direla behar bezala errespetatu, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren aurrean erreklamazio bat aurkezteko, euren webgunean adierazitako posta-helbidean eta/edo helbide elektronikoan.

Datuak modu konfidentzian tratatuko dira, eta segurtasuneko neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak hartuko dira, datuak aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo baimenik gabe horiek eskuratzeko saihesteko. Ezarritako segurtasun-neurri teknikoak

eta antolaketakoak bat datoz Administrazio Elektronikoaren eremuan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Dekretuan aurreikusitako neurriekin.

10. Orokorrak

Zozketa honetan parte hartzeak esan nahi du Oinarri hauek onartzen direla, salbuespenik gabe. Desadostasunak egonez gero, HAZIren interpretazioa loteslea izango da.

Oinarriak aldatzeko eta sustapena luzatzeko, laburtzeko edo bertan behera uzteko eskubidea du HAZIk, ezinbesteko arrazoiengatik edo ekintza hori justifikatzen duten ezusteko zirkunstantziengatik.

Parte-hartzaileek emandako datuak okerrak badira eta, hortaz, horiek identifikatzea edo sariaz gozatzea ezinezkoa bada, HAZI ez da erantzulea izango. Halaber, Nire Akordioaren kontu ofizialetatik argitaratzen ez diren komunikazioak edo zozketak iruzurrezkoztat hartuko dira.

Parte-hartzaileak izango dira Instagram sare sozialean argitaratzen dituzten edo haren bidez komunikatzen dituzten edukien, irudien, mezuen eta/edo iruzkinen erantzule osoak eta bakarrak. Zentzu horretan, parte-hartzaileak sustapenean aurkeztutako argitalpen edo iruzkin baten ondorioz eskubideren bat urratzen badu (irudi-eskubideak, datuen babesa, ohorea, intimitatea eta hirugarrenen beste edozein eskubide), parte-hartzailea izango da urraketa horrekin zuzenean edo zeharka lotutako erreklamazio ororen erantzulea. Hala, urraketa horren ondoriozko erantzukizun ororen aurrean, katerik gabe mantenduko da HAZI.

Parte-hartzaileak zozketaren argitalpenean sare sozialetako erabiltzaileen datuak sartzen baditu, parte-hartzailea izango da erantzule bakarra.

Modu desegokian parte hartuz gero, eta saria eman ondoren ohartuz gero, egilearen edo erantzulearen kontrako legezko ekintzak gauatzeko eskubidea izango du HAZIk; esaterako, saria itzultzea.

Sustapenean parte hartuz gero, halabeharrez, HAZIren interpretazio-irizpidea onartu behar da, sustapen honekin lotutako edozein gairen ebazpenari dagokionez.

Erabiltzaileak, zozketa honetan parte hartuz geroz, oinarri hauek onartzen ditu.

Oinarri hauek eskuragarri daude <https://www.nirea.eus/wp-content/uploads/2025/02/lege-oinarriak-nireagertutik.pdf> URLan, kontsultatzeko. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko alderdiak edo horien interpretazioaren gaineko zalantzak HAZIren irizpidearen arabera ebatziko dira.

Baldintza orokor hauek Espainiako Legearen arabera interpretatuko dira.